

1. ZERBITZUA KUDEATZEKO HELBURU NAGUSIAK

Zerbitzu kontratu honen bitartez, Lekeitioko udaleko berdintasun zerbitzua kudeatzeko kontratua egin nahi da eta horren dinamizazioa eramango lukeen teknikariaren zereginak argitu.

Ondoren zerrendatzen dira egin beharreko lanak:

- Udalaren berdintasun politika, protokoloak eta prozesuak gauzatzea, garatzea eta proposatzea.
- Lekeitioko Udaleko Berdintasun planean zehaztutako ekintzak aurrera eraman, egokitu eta ebaluazioak egitea.
- Lekeition izan litezkeen bereizkeriazko egoerak identifikatzea, eta horiek ezabatzeko neurriak diseinatu eta sustatzea.
- Irteten diren dirulaguntza ezberdinak landu, prestatu eta tramitatzea.
- Administrazioan, berdintasunari buruzko legeak betetzen eta betearazten direla kontrolatu eta jarraipena egitea.
- Berdintasun sailaren aurrekontuen jarraipena egitea.
- Berdintasun batzordea dinamizatu, prestatu, ebaluazioa egin eta idazkaritza lana burutzea.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Eskualdeko gainontzeko berdintasun arloko udaletako teknikari eta arduradunekin harremana izatea eta ekintzak bateratzea.
- Herriko talde, eragile eta norbanakoekiko harremana lantzea, parte hartzea sustatzea eta koordinazioa burutzea.
- Udaleko berdintasun arloan egindako ekintzetatik eta aurrera eramandako egitasmoetatik sortzen den dokumentazioa behar den bezala artxibatzea.
- Egunerokotasunean sor daitezkeen lan ezberdinak aurrera eramatea eta lantzea.

2. TEKNIKARIAREN PERFLA

- Lizentziatura edo diplomatura.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa, gutxienez 150 ordukoa eta organo ofizial batek ziurtatuta (unibertsitatea edo administrazio publikoa), eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako teknikari gisa edo lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzen gutxienez bi urteko lan-esperientzia, lan bizitzako ziurtagirian ez ezik, enpresa kontratatzaileak eman duen eta eginkizunak eta dedikazioa agertzen dituen ziurtagirian ere jasota.
- Euskara maila altua izatea, EGA tituluaz gain, erraztasunez idatzi zein hitz egiteko gaitasuna.

3. ZERBITZUAREKIKO BALORATUKO DIREN EZAUGARRI TEKNIKO ETA METODOLOGIKOAK

- Zerbitzuaren arduran jarriko den teknikariaren perfilari dagokionez, berdintasunean diharduten eragile eta norbanakoekiko dinamizazio gaitasuna izatea baloratuko da. Pertsona aktiboa izatea baloratuko da, eta, horretarako, berdintasunarekiko ezagupena eta eskarmentua kontuan hartuko dira, bai eskualde mailan eta, baita Euskal Herri mailan ere. Era berean, teknikariak esparru honetan izan dezakeen formazioa eta esperientzia ere kontuan hartuko dira.
- Zerbitzua ematerako orduan, horretara esleitutako teknikariak bajaren bat hartuko balu, teknikaria ordezkatzeko konpromisoa erakutsi beharko luke.

3. LAN ORDUAK

Aholkularitza zerbitzua, gutxienez, astean egun baten, 6 orduko lanaldian eta EAEko bi hizkuntza ofizialetan eskainiko da. Horretaz gain, hilean behin 1,5 orduko batzordea ere egingo da.